


CULTURA VASCA VS EUSKAL KULTURA

Ibai Iztueta Azurmendi,
Ultriusque Vasconiae, 379 or.
Donostia, 2014

Hizkuntza eta kulturaren arteko harremanak ikertu ditu Ibai Iztuetak bere saiakera bikainaren orri marduletan. Plazaratu berri duena, urtebete lehenago aurkeztutako doktorego-tesiaren «moldapen azkarra» izan dela dio egileak berak, edonola, eskuetan duguna, Euskal kultura eta hizkuntzen arteko diskurtsoak aztertzeko jatorriko bokazioarekin sortu eta burututako lanaren ondorioa da.



1. irudia. *Cultura vasca vs Euskal kultura*, argitalpenaren azala.

Saiakera honen irakurleak, hasi ordurako egingo du topo gogoetaren jatorrian dagoen abiaburuko galderarekin. Eta honela formulaturik dago, hots: euskal kultura euskaraz baino ez da posible, ala espainolez edo frantsesez ere bai? Egiazki, ez da beharbada hain galdera berria gutako askorentzat, baino nago gaurdainokoan beste inon ez bezala aletu dituela galdera-muinetik ondorioztatzen diren hizkuntzarekiko kultur harremanen testuinguru-baldintzak. Hara nola, galdera bere testuinguruan dantzan jarriz, batzuetan arrazoibide berriak eraiki ditu, eta, beste batzuetan, lehendik esandako arrazoibideen gainean izendapen-ariketa bikaina burutu duela-koan nago. Izan ere, euskal kultura bakarrik euskaraz egindakoa ote den, edota frantsesez eta espainolez egindakoa ere euskalduna ote den galderaren aurrean, ganoraz erantzutekotan, non eta nola sortzen den galdera bera kontuan hartzea

beharrezkoa egiten da. Hain zuzen, zein testuinguru-baldintzatan sortzen den galdera, galdera beraren formulazioa pertinente bihurtzen dute, eta hortxe dago ikerketa-arrazoibidearen abiapuntua.

Gizarte-baldintzen testuinguruan bada, lehenik, kontuan hartu beharko dugu Euskal Herriaren egoera ez dela beregaintasun propioa duen herri batena, baina bai, ordea, asimilazio-egitasmo baten baitan kokatzen den azpiratutako herri/gizarte batena; bigarrenik, hizkuntza eta kulturaren arteko harremana, Euskal Herriak duen subordinazio-harreman marko baten baitan kokatzen dela ondo gogoan hartzen du lztuetak; izan ere, egoera horrek baldintzatzen du euskal kulturaren zehaztapena egiteko jarduna. Subordinazio- eta asimilazio-baldintza horien abiapuntutik, euskal kulturaren zehaztapena egitea auzi diskurtsibo eta ideologiko bilakatzen da lztuetaren iritziz. Abiapuntu horretatik galde dezakegu, bada, zergatik galdera horrek errealitate sozial baten baitan zentzu bat hartzen duen eta ez beste batean adibidez: alemanez egindako kultura frantsesa posible ote den galdera zentzugabearen aurrean adibidez. Horrek erakusten diguna zera da, galderaren zentzua errealitate sozialaren baldintzen araberakoa dela eta gizarte-harremanen botere-jokoan erdiesten dela auzia. Hortaz, euskararik gabeko euskal kulturarik posible ote den galdetzea baino, zalantzarik gabe, egokiago da galdetzea euskal kulturari buruzko diskurso egokirik gabe euskaraz bizitzea posible ote den. Bestalde, euskal kulturaren diskurso egoki baten premiak erakusten du hiz-kuntzarekiko harremana, baiezko biribilaren eta ezezko erlatiboaren arteko dantzan eraikitzea komeni dela batzuetan, noiz, non, norekin, eta zein testuingurutan sortzen den auziaren baitan. Areago, helburua euskararen ezagutzara hurbiltzea denean, euskal kultura eta hizkuntzaren arteko ezezko erlatiboaren erantzun estrategikoa onargarria litzateke lztuetak argudiatzen duen eran. Hain zuzen, galderari baiezko edo ezezko biribila ematea baino areago, erantzun estrategikoaren beharra bi premisaren gainean oinarritu du lztuetak: lehenenean, euskal kultura definitzen duen konstante bakarra euskara dela argi du; bigarrenean, bere burua euskalduntzat jotzen duen jendeak euskaraz bizitzeko aukera izatea eta aukera den guztietan hautu horren alde egitea hobetsi du.

Posizio diskurtsiboak

Gogoan dugu lehenik euskal kulturaren definizioa ezartzeko orduan botere-harremanetan gauzatzen den diskurtoaren eragina. Beraz, euskal kultura espainolez eta frantsesez posible al den edota euskaraz bakarrik behar duen galdetzeak zentzu bat hartzen duen neurrian, gizarte-baldintzatik harago, gogoan izan behar dugu esaten dugun horrek errealitatean eragingo duela eta gure hitz horiek errealitatea bera eraikitzen eragin bat izango dutela: hori da hain zuzen diskurtoaren materialtasunaren premisa. lztuetak darabiltzan hitzekin esateko, «hitzekin esan eta adierazi ez ezik, ekin, egin eta eragin egiten dugula ezartzen duen premisa da eta hartara diskurtoa ulertuko dugu errealitate sozialaren parte gisa, errealitatearen sortzaile eta errealitatearen bilakaeran eta antolaketan eragiten duen gertakari edo ekintza gisa». Euskal kulturaren definizioa botere-harremanen jokoan eraikitzen den auzi ideologiko eta diskurtsibo bihurtzen du horrek. Eta zeintzuk izan dira botere-joko horren baldintza sozialak euskal kulturari dagokionez? Hain zuzen galdera

berari zentzu bat ematen dioten arrazoibide baldintzak, galdera pertinentea izatea eragin dutenak. Baldintza horiek, Iztuetak azaltzen duenez, zerikusia dute Euskal Herriak bizi duen subordinazio-egoerarekin eta jasan duen asimilazio-prozesuaren ondorioz sortu den hizkuntza-ordezkapenaren egoerarekin.

Arrazoibide horretara iritsita, Iztuetak, Ikerketa Kulturalaren eta Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren haritik, Miren Nekane Jausorok (1997) burututako lanaren posizio diskurtsiboen identifikazio eta deskribapena egiten du, lan horrek azterbide oinarri bat ematen diolakoan. Jausorok komunitate diskurtsibo, afektibo eta linguistikoaren arteko harremanak aztertu zituen komunitatearen izaera ezberdinei leku bat emanaz eta oinarriko hiru posizio sozio-ideologikoak berezitu zituen. Laburki, euskararen aldeko diskurtsoa; euskararekiko ezaxolazko diskurtsoa; eta ukoaren diskurtsoa. Aldeko diskurtsoan euskararen atxikipen-komunitateak egiten du bat, erdaldun elebakarrez zein euskaldun elebidunez osaturikoa. Ezaxolazko zein ukoaren diskurtsoetako komunitateak, aldiz, ideologia espainiazale epela edota sutsuagoa agertzen dutenek osatzen dituzte, ia erabat elebakarrak eta espainieraren atxikipen-komunitateko parte direnak. Ukoaren posizio uzkurrenak aldarrikatzen du euskal hizkuntza ez ikasteko eskubidea euskal hizkuntza erabiltzeko eskubidearen gainetik dagoela. Ezaxolazko diskurtsoaren komunitateko posizioa irekiagoa izanik, euskarari balio sinbolikoa nahiz instrumentala aitortzen badio ere, Euskadikoak bai, baina euskal herritar ez dira sentitzen. Ez diote espainieraren balioari ukorik egiten euren benetako hizkuntza delako, baina euren seme-alabek euskaraz jakin dezaten hobetsi egiten dute. Beste norabide batean genituzke euskaren aldeko diskurtsoan, aktiboak eta pasiboak direnen arteko diferentzia. Diskurtso pasiboan hizkuntzarekiko maitasuna eta motibazio afektiboa zein sinbolikoa gailentzen da eta aktiboa hizkuntza tradizio-eremutik gizarteko funtzio guztiak betetzeko helburuarekin aritzeko ekinbidean datza. Baiezko diskurtso hori praktikan desiozkoa bihurtzen da, balizko etorkizun normalizatu bat amets.

Laburki azaldutako Jausororen diskurtsoen maparen ondorioa baldin bada euskararen normalizazioak aurrera egingo duela identifikazio ideologikoak gainditzen diren neurrian, Iztuetak bere saiakeran aldezen duen posizio ideologiko-diskurtsiboa alderantzizkoa izan da: euskararen erabileraren normalizazioa abertzaletasunaren eskutik etorriko dela dio egileak. Iztuetak euskararen erabileraren motorra euskal herritartasun-sentimenduan datzala dioen argudioaren alde egin du. Iztuetaren ustez, ezingo da euskaren normalizazioa euskararen gutxiagotzea edota desagertzea bilatzen dutenen jarreraren baitan egon. Haatik, bere saiakeran defendatu duena da, euskararen normalizazioa, abertzaleen artean *erabileraren* diskurtsoa hegemoniko bihurtzetik eratorriko dela. Eta normalizazio horrek bi zutabe lituzke haren hitzetan: «Batetik, bere burua abertzaletzat daukanak euskaraz egiteko erabakia hartzea eta hautu hori burutzeko baldintzak bermatuak izatea; bigarrenik, bere burua abertzaletzat ez daukatenean artean euskararen ezagutza bermatua izatea eta inork hari euskaraz egiterakoan, besterik ez bada ere, euskaraz erantzungo duen jarrera pasibo irekia sustatzea». Errekonozimendua eta erabilerarako ardua azpimarratuko duen diskurtsoaren garapena egin du Iztuetak, euskararen normalizazioa azken batean abertzaleen eskuetan dagoela argitu nahi izan delako. Haatik, euskararen «despolitizazioa» aldarrikatzen duen posizio diskurtsibo horren aurka egingo du,

politika asimilatzaile maltzurrena bera dela salatzeko. Ezinbestean, euskararen politizazioaren alde egitean, politikaren oinarrian behar lukeen zentzu onaren berreskurapenaren alde ere egiten du. Hau da, norbere buruarekiko errespetutik abiatu beharra lehenik, eta ez aldamenekoaren ukotik.

Hemendik aurrera, ideia horien neurriera terminologia-ekarpena ere egin du Iztuetak, kontzeptualizazio aski pertsonala duten zenbait terminotan. «Euskal herritar» eta «Euskal Herriko hiritar» bietan bereizketa zorrotza egiten du. Hiritarrak Euskal Herriko lurraldean bizimodua egiten dutenak dira, euren hizkuntza, jatorri, herri-sentimendu edo kontzientzia zeinahi delarik. Euskal herritarrak, aldiz, euren herri-sentimendu edo kontzientzia bereziki «espainol» edota «frantses» direnetatik bereizten dutenak dira. «Abertzale» izendatzen ditu bere burua euskal herritartzat dutenak eta bere burua espainol edo frantses dutenak «nazionalista». Euskalduna, hortaz, euskaraz egiten duena izango da, eta erdalduna erdaraz egiten duena da; beraz euskaraz jakinik eta euskaraz egiteko aukera izanda erdaraz egin ohi duena hor sartuko du. Erdarez aritzeko «espainola» terminoa darabil. Eta gero «incola» hitzari «diaspora» egiten dion ispilua kontrajarri dio. «Incola», euskaldunaz mintzo, bere herrian arrotz sentitzen direnei esateko, euskaldunek beren herrian izan duten arrotze-prozesua ondo jasotzen duelakoan, eta «diaspora», berriz, «euskaldun» erdaldunak begirunez izendatzeko proposatzen duen hitza da.

Euskal kulturaren bi diskurtso

Euskal kulturari buruzko diskurtsoak garrantzitsuak izango dira identitate mota ezberdinen konfigurazioan, identifikazio baten edo bestearen alde egiten dutenez, hizkuntzarekin lotzen dira. Hara nola, euskaltasuna euskararen erabilerarekin lotzen duen identitate diskurtsibo batek euskararen erabileraren alde egingo duen bezala, euskaltasuna eta euskararen erabilera disoziatzen duen diskurtsoak, nagusitzen den praktika bultzatuko du, espainolaren eta frantsesaren erabilera alegia. Iztuetak dioskunez, gaur egun arte, hizkuntza eta identitatearen arteko harremanetan, euskal hizkuntzaren auzia euskal identitatearen auziari subordinatu izan zaio eta horren adibidea da abertzalegoaren bi diskurtso nagusien inguruan egiten duen iruzkina. Bat, Txillardegiren diskurtsoa da eta bestea Zallorena. Bietan aurki ditzakegu euskal kulturaren eta hizkuntzaren arteko harremanetan azaltzen diren posizio diskurtsibo nagusiak. Txillardegik euskal kulturarik ez dela posible euskararik gabe dio; Zallorentzat, euskal kultura, euskara gainditzen duen zerbait da, halako identitate-sentimendu amankomun bat. Bi diskurtso horietan Iztuetari interesatu zaiona da euskararen biziberritzearen ikuspegitik dituzten alderdi on eta ez hain onak iruzkintzea. Izan ere, lehengoak, abiaburuko galderari baiezko batekin erantzuten dion neurrian, euskal kultura bakarrik euskaraz egiten dena ari da argudiatzen. Txillardegi Euskal Herria euskalduna izango dela edota bestela ez dela izango ari da esaten. Txillardegiren diskurtsoak gutxituriko herri batek ezinbestekoa duen asertibotasuna badu eta hizkuntza propiotik esplikatzen du identitatea, hizkuntza ezinbestekoa da komunitate-berreskurapenean, hargatik erabilera jomugan jartzen du. Bigarrenak, berriz, galderari ezezkoarekin erantzuten dion neurrian, euskal kultura frantsesez eta espainolez ere egin ahal dela ari da argudiatzen. Hizkuntzaren normalizazioaren jomugan Txillardegiren diskurtsoak euskaraz egiteko arrazoi on

asko ematen dituen bezala bere mugak ere erakusten ditu. Zallorenak, diskurtso inklusiboagoa dela erakusten duen neurrian, kasu askotan jende baten euskararekiko hurbiltasuna erraztu eta zubiak bilatzen dituen diskurtso bezala konfiguratu da. Alde horretatik Zalloren diskurtsoaren borondate integratzailea aipatu behar da, bitartekoa izan beharko luke euskaltasunarekiko atxikimendua lortzeko baina ez bere horretan helburu bihurtzeko. Arrisku nagusia orduan hauxe da, diskurtso hori praktikan erdararen erabilera hegemonikoaren eta euskararen subordinazio-izaera normalizatzeko erabil daitekeela.

Iztuetak bi diskurtso hegemoniko horiei egiten dien kritika da biek ala biek hizkuntzaren afera identitatearen gaiari subordinatuz azaltzea. Bi diskurtso horietan hizkuntzak zein toki betetzen duen identitatearekiko galdetzean, hizkuntza identitatearekiko eztabaidaren emaitzaren baitan uzten dute. Eta Iztuetak, aldiz, planteatzen diguna da hizkuntzaren erabilerari identitatearen zein diskurtsok egiten dion on ikustea dela interesgarriagoa. Hau da, interesgarriagoa da galdetzea ea nolakoa izan beharko lukeen euskal identitateak, euskara normalizatu dadin. Hortxe dago hizkuntza-identitateari subordinatu gabe planteatzeko bidea. Hizkuntzaren normalizazioa jomugan jarritz gero diskurtsoa beste modu batera eraiki edo planteatu liteke. Diskurtso-mailan ere berdin, Iztuetaren ustez galdera eta beharra zeintzuk diren, diskurtso batekin edota bestearekin erantzun beharko da, euskararen erabileraren normalizazioak berak euskal kulturarik erdaraz posible ote den galdetzeak bere pertinentzia galtzen duen arte.

Ondorioa

Iztuetak ondorioztatzen du Euskal kultura eta Cultura vasca ez direla baliokideak. Bi galdera ezberdin dira eta bi erantzun ezberdin eskatzen dute. Euskal kultura herri batek bere hizkuntzaren arragoan integratu dituen jende eta eraginaren emaitza denean, mendetan zehar hemen egon den komunitate bat euskaraz jardun izanaren emaitza da, kultura-praktika batzuk bereganatzen eta besteak bidean uzten joan den emaitzaren ondorioa. Cultura vasca, ordea, asimilazio-prozesuan ezaugarritzen joan denez, funtsean euskara galdu duen edota euskaraz ikastea galarazi zaion Euskal Herriko populazioaren asimilaziotik eratorritako kultura-praktika bihurtzen da. Asimilazio-prozesu horretan, bada, hizkuntzaren ordezkapen bat egon da, eta, ondorioz, beste kultura-praktika batzuk ere bereganatzen dira, funtsean beste komunitate bat sortu artean, euskararekiko lotura mozten duena. Komunitate horrek identitate bat gordeko du, berezituia —*vasca*— deritzona, baina asimilazioaren emaitza da. Horren barruan Iztuetak bereiziko du Cultura vasca erresistentea eta erresistentea ez dena. Lehenean hainbat jendek egin du euskal komunitatearen berrosaketaren alde, bai gaztelaniatik bai frantsesetik eta urteetan metatutako tradizio handi baten emaitza da. Zubi gisa funtzionatu du hainbat jende euskal kulturara itzultzeko eta bertan barneratzeko. Gero dago asimilazioa bere horretan onartu eta erresistentziarik jarri ez duena, espainolez normaltasunez funtzionatzea onartzen duena. Nahiz eta bigarren diskurtso horrek euskaldungoa / ez hain euskalduna bereizketa alboratzen duen, euskaraz egiten duena euskaraz egiten ez duena baino euskaldungoa dela arbuaiatuz, badu zer berrikusi beharrik. Euskal Herriko nortasun eta hizkuntzaren normalizazioa erdaldunen premia identitarioak asetzetik

bakarrik eratorriko bada, euskaldunen behar identitarioak zaindu baino gehiago gaitzetsi egiten ditu. Hortaz, euskara erabiltzen duenak funtsean hala jokutzen du euskara euskalduntasunaren funtsa dela uste duelako eta euskal identitate eta euskararen erabilera gauza bera direla ulertzen duelako. Azkenik, Euskal Herriko erdaldunek identitatea eta hizkuntzarekin problema bat dutela ukatzea diskurtso baten hegemoniarekin eta euskaldunen subordinazioarekin loturiko afera bihurtzen dute. Haatik problema hori begirunez lantzeko baliagarri diren bi izen proposatzen dizkigu Iztuetak: *incola* eta *diaspora*. Izan ere, izenen dikotomia horrek euskara jartzen du erdigune sinbolikoan. Incola, euskaraz egiteak norbera bere lurtean arrotz nola egiten duen adierazten duen hitza da; diasporak euskaraz ez dakien «euskaldun»aren izaera diasporikoa adierazten du, euskararen lurraldean bizi izanda ere hizkuntzarekiko bizi duen erbestea da.

Jexux Larrañaga Arriola